

## **BEZEROEKIN ERLAZIOA**

Bezeroak enpresa ororen funtsezko oinarrietako bat da, oinarrizkoena ez bada. Izan ere, bezerorik ez badago, ez da diru sarrerarik, eta ondorioz enpresarik ere ez. Honekin, bezeroak mimatu beharreko pertsonak direla esan nahi dugu eta hauekiko 24 orduko arreta izango genuke. M&MICen bezeroa dugu lehentasun, horregatik, arazo konpontze metodologia berria bultzatu nahi dugu, zeinaren bitartez, telefonoz hots egin beharrean, zuzeneko bideokonferentziak bultzatuko ditugun.

Enpresa berritzaile eta berdearen irudia eman nahi dugu. Horiek baitira gure indarrak lehiakideekiko. Propaganda handirik beharko ez lukeena. Begibistakoak baitira gure enpresaren ezaugarriak.

Azkenik, gure abeltzainekiko erlazioa estua izango litzateke. Guri emandako materia organikoaren arabera, trukean emandako ongarri likidoa proportzioan jasoko lukete. Horrez gain, ongarri gehiago behar izanez gero gure bazkide izateagatik deskontu bereziak aplikatuko litzaieke.